HER Tabernak_protokoloa_2026 IMPR.pdf 1 6/1/26 21:35

CÓMO ACTUAR

Si se observa que se está produciendo una agresión machista o racista, acercarse a quien la está sufriendo y **PREGUNTARLE** si necesita ayuda, antes de tomar ninguna decisión por nuestra cuenta.

- En caso necesario, encender las luces, apagar la música o tomar las medidas oportunas.
- Es una cuestión prioritaria, por tanto, dejar lo que se está haciendo en ese momento y atender a la persona que está sufriendo la agresión. Acompañarle a un lugar donde pueda estar tranquila e **INFORMARLE** de que puede solicitar ayuda independientemente de que decida denunciar o no.
- **ESCUCHAR** con atención lo que la persona agredida dice (sus explicaciones, necesidades…) sin cuestionar lo que está contando. **NO JUZGARLE** ni hacerle sentir culpable.
- Hablar con quien ha agredido y **DEJARLE CLARO** que en el bar o sidrería no se admiten actitudes machistas ni racistas, y en caso necesario, expulsarle del local.
- Preguntar a la persona agredida quién de su confianza podría ayudarle. No dejarle sola y, si es necesario, acompañarle a donde sea preciso o esperar a que acuda **ALGUIEN DE SU CONFIANZA.**
- Puede ocurrir que la agredida decida no hacer nada en ese momento. En ese caso, facilitarle los teléfonos de servicios y recursos, por si posteriormente quisiera ponerse en contacto.

ACTUACIÓN PREVENTIVA PARA EVITAR AGRESIONES

Mostrar en el espacio que no se acepta ninguna actitud machista ni racista, y que, en caso de agresión, se tomarán medidas.

Todas las personas que actúen en los espacios deben conocer el protocolo antes de su turno.

TEN EN CUENTA…

- Si es un caso de **AGRESIÓN SEXUAL / VIOLACIÓN**, y aunque no lo tenga claro si quiere denunciarlo o no, **INFORMARLE** de que si bebe, come, se limpia o cambia de ropa, va a eliminar las pruebas.
- Si la persona agredida está herida y necesitase asistencia médica, **INFORMARLE** de que en casos de violencia sexista, el personal sanitario está obligado a dar parte al Juzgado.
- Si la **MUJER ES EXTRANJERA** en situación no regularizada, se actuará igual, ya que tiene los mismos derechos a la asistencia y a los servicios.
- Es importante por nuestra parte en todo momento **RESPETAR** las decisiones que toma la persona agredida.
- **NO DIFUNDIR DATOS NI INFORMACIÓN** de lo sucedido, sin pensar en cómo le puede repercutir ello a la víctima.
- Si no ha habido intervención de la Policía Municipal, al día siguiente pasar aviso de lo sucedido.

TELÉFONOS DE INTERÉS

- **Teléfono de atención de agresiones: 688 685 164** (viernes y sábados de febrero y marzo 18:00-06:00)
- **24 horas:** Servicios de emergencias **112** y **092** Policía Municipal

Hernanin ez da jokabide matxista eta arrazistarik onartzen.

INDARKERIA **MATXISTA** ETA **ARRAZISTA** KASUETARAKO AHOLKU ETA JARRAIBIDE PROTOKOLOA

INDARKERIA MATXISTA

Giza eskubideen urraketa larriak dira, zeinak emakumeei eta LGBT+ taldeko pertsonei, hau da, jendarteak ezarritako araua jarraitzen ez duten pertsonei, eragiten dien.

INDARKERIA SEXISTA

Emakumeek emakume izateagatik pairatzen duten indarkeria da, egiturazko desberdintasuna mantentzeko erabiltzen dena. Indarkeria honen helburua gizon eta emakumeen arteko botere harreman hierarkikoak ezarri eta mantentzea da, emakumeak menpekotasun eta diskriminazio egoera batean kokatuz.

TRANSFOBIA, LESBOFOBIA, HOMOFOBIA…

LGBT+ pertsonek “sexu/genero/sexualitate” eskema tradizionaletik at egoteagatik eta ezarritako ordenari aurre egiteagatik sufritzen duten indarkeria da. Helburua da ezarritako ordena hori indarraren eta indarkeriaren bidez kontrolpean mantentzea.

ARRAZAKERIA ETA XENOFOBIA

ARRAZAKERIA

Giza talde edo arrazen artean hierarkia dagoela uste izatean oinarritzen den ideologia da, zeinaren helburua eta ondorioa baita giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak berdintasun -baldintzetan aitortzeari, gozatzeari edo gauzatzeari mugak jartzea edo haiek ukatzea. Arrazakeriarekin guztiz lotutako beste kontzeptu bat **XENOFOBIA** da, hots, atzerritarrekiko, beste talde etnikoekiko edota kultura arrotzeko pertsonekiko mesfidantza, gorrotoa, arbuioa edo aurkako jarrera.

Hernaniko Udala

eə berdintasun kontsəilua

HER Tabernak_protokoloa_2026 IMPR.pdf 2 6/1/26 21:35

ZER EGIN

Eraso matxista edota arrazista bat gertatzen ari dela ikusten baduzu, erasoa jasaten ari denarengana hurbil zaitez eta laguntzarik behar duen **GALDEIOZU,** zeure kabuz erabakirik hartu aurretik.

- Beharrezkoa bada, argiak piztu, musika itzali edo egokien jotzen diren neurriak hartu.
- Lehentasuna duen kontua da, beraz, utz ezazu une horretan egiten ari zarena eta egin iezaiozu kasu erasoa jasaten ari den pertsonari. Lasai egon daitekeen leku batera eraman ezazu eta **JAKINARAZ IEZAIOZU** laguntza eska dezakeela, salaketa jarri ala ez.
- Arreta handiz **ENTZUN EZAZU** erasotuak esateko duena (azalpena, beharrak…) eta ez zalantzan jarri kontatzen diguna. **EZ EPAITU** eta ez errudun sentiarazi.
- Erasotzailearekin hitz egin ezazu eta **ARGI UTZ IEZAIOZU** taberna edota sagardotegi horretan ez dela jarrera matxistarik ez arrazistarik onartzen. Beharrezkoa bada, lokaletik kanpora ezazu.
- Erasotutako pertsonari galdeiozu ea bere konfiantzazko nork lagun dezakeen. Ez ezazula bakarrik utzi eta, beharrezkoa izanez gero, lagundu ezazu behar den tokira edo itxaron ezazu **BERE KONFIANTZAZKO NORBAIT** etorri arte.
- Gerta daiteke erasotuak une horretan ez jakitea zer egin nahi duen. Kasu horretan Hernaniko baliabide eta zerbitzuen telefonoak eman iezazkiozu, beranduago eurekin harremanetan jarri nahiko balu.

ERASOAK SAIHESTEKO PREBENTZIO-JARDUERAK

Ongi ikusteko moduan jarri espazio horretan ez dugula inolako jarrera matxista edo arrazistarik onartuko eta, erasorik gertatuz gero, neurriak hartuko ditugula.

Langile guztiek izan behar dute protokoloaren berri beren txanda egitera sartu baino lehen.

KONTUAN IZAN…

- **SEXU-ERASOA/BORTXAKETA** kasuetan: nahiz eta oraindik ez erabakia izan erasoa salatuko duen ala ez, **JAKINARAZ IEZAIOZU** jaten badu, edaten badu, arropaz aldatzen bada edota garbitzen bada, frogak ezabatuko dituela.
- Erasotutakoa zauritua badago eta arreta **MEDIKUA** behar badu, **JAKINARAZ IEZAIOZU** indarkeria sexista kasuetan larrialdiko zerbitzuko medikuak Epaitegira parte bat bidaltzera derrigortuta daudela.
- Erasotutako emakumea egoera erregularizatu gabeko **EMAKUME ATZERRITARRA** bada, berdin jokatuko dugu, laguntza eta zerbitzuak erabiltzeko **ESKUBIDE BERAK** dituelako.
- Garrantzitsua da guk, une oro, erasotua izan denaren erabakiak onartzea eta **ERRESPETATZEA.**
- **EZ ZABALDU** gertatutakoari buruzko **DATU ETA INFORMAZIORIK**, aldez aurretik biktimari nola eragin liezaiokeen pentsatu gabe.
- Udaltzainen parte-hartzerik izan ez bada, hurrengo egunean erasoa gertatu izanaren abisua pasa.

INTERESEKO TELEFONOAK

- **Erasoen arretarako telefonoa: 688 685 164** (otsaileko eta martxoko ostiralak eta larunbatak 18:00-06:00)
- **24 orduz: 112** Larrialdi zerbitzuak eta **092** Udaltzaingoa

Hernanin ez da jokabide matxista eta arrazistarik onartzen.

PROTOCOLO
DE PAUTAS DE ACTUACIÓN
PARA CASOS DE VIOLENCIA **MACHISTA** Y **RACISTA**

VIOLENCIA MACHISTA

Son graves vulneraciones de los Derechos Humanos de las mujeres y de las personas LGBT+, es decir, personas que no siguen las normas impuestas por la sociedad.

VIOLENCIA SEXISTA

Violencia que sufren las mujeres por el hecho de ser mujeres, como elemento de control para mantener la desigualdad estructural. Su objetivo es imponer y mantener relaciones de poder jerárquicas entre mujeres y hombres, colocando a las mujeres en una situación de dependencia y discriminación.

TRANSFOBIA, LESBOFOBIA, HOMOFOBIA…

Violencia que sufren las personas LGBT+ porque no se ajustan al esquema tradicional sexo/género/ sexualidad, y desafían el orden instaurado, que debe ser mantenido bajo control a través de la fuerza y la violencia.

RACISMO Y XENOFOBIA

RACISMO

Es una ideología de superioridad basada en motivos de raza, color u origen nacional o étnico que tenga por objeto o por resultado anular o menoscabar el reconocimiento, goce o ejercicio en condiciones de igualdad los derechos humanos y libertades fundamentales. El racismo está relacionado con la **XENOFOBIA**, es decir, odio, repugnancia u hostilidad hacia las personas extranjeras u otros grupos étnicos.

Hernaniko Udala

berdintasun kontsəilua